

Etxalarko alkatea, zinegotzi eta herritarrok!

Euskaltzainok! Jaun-andreok!

Egun on guztioi!

Etxalarrera etorri da lehenbizikoz Euskaltzaindia bere XV. Barne-Jardunaldiak eta osoko bilkura egitera.

Hortaz, lan egitera etorri da Euskaltzaindia Etxalarrera. Halaxe egin du, egin ere, ostegunetik ostiralera, bi urterik behin egiten dituen gogoeta aldiak gauzatzera.

Jardunaldiak aberasgarri izan direnik ezin uka; besteok beste, urrats esanguratsuak eman dira, egungo baliabide informatiko eta teknikoek eskaintzen dutena euskararen mesederako jarritz.

Izan ere, hortxe du helburu nagusia Euskararen Akademiak. Euskara aurreratzea eta ontzea, zorroztea eta fintzea. Horretarako ere Euskal Herriko kideak batzen ditu batzar zein batzordeetan, euskalki, lurralde zein pentsamolde desberdinetakoak, eta euskararen ahaleginetan jartzen ditu.

Eginkizun honen kezka sortu zen eta horretan dirau Euskaltzaindiak, aldian-aldian euskararen premiak zein diren zehazten eta horiei erantzuna emanez.

Ez da falta, horratio, Euskaltzaindiaren lan eta neke on horretan Etxalarko herritarren ekarria. Hain zuzen ere, jarraian entzungo ditugu, Pello Apezetxea ohorezko euskaltzainaren azalpenetan eta Patxi Iñigo euskaltzain urgazlearen hitzetan, Teodoro Arburua eta Eusebio de Etxalarren nondik norakoak eta eginak eta gero Bortzirietako hizkeraren berezitasunak gazteen euskaran.

Leku ederra, zinez, Etxalarkoa. Are ederragoak, zuek eskaini dizkiguzuen erraztasunak eta harrera abegikorra. Pozik doa Euskaltzaindia Etxalartik. Seguru nago, aurrerantzean ere. gure aho-mihietan, zuen herrian eman ditugun egunen oroitzapenak bizi-biziak izango direla..

Mila esker, beraz, zuei eta entzun ditzagun hitzaldiak.

Etxalarren, 2007ko apirilaren 21ean
Andres Urrutia, Euskaltzainburua